

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



The Ar(o)abar Pistols

God save the hegemonia! Hegemonia hil da.
Arabar batek EHko Eskolartekoa irabazi du.



Bakea, isiltasuna, armonia, oreka...
Sara herrian. Baina jende arraro samar
hurbiltzen hasi zen ekainaren 10ean,
makro ekitaldi bat antolatua omen
zegoen Sarako trinketearen: Euskal Herriko
Bertso Eskolarteko Txapelketako finala,
bai, hori, Punk and Roll.

Espainiako "E" zeukaten matrikuladun
kotxeetatik "r" hirukoitza ahoskatzen
duten euskaldunetz betetzen hasi zen
ondoko taberna. Eta "ebaki" eskatzen
zuten, tabernariak jakin gabe zer
demontre zen hori.

Mikroak eta anpliak entxufatu, eta soinu
probak egin gabe The Ar(o)abar Pistols
jo eta jo aritu ziren. Saran horiek izan
ziren teloneroak: Aroa Arrizubieta eta
Aitor Ugarte. Hasieratik bukaera arte
ozen eta distorsionatu gabe esan eta
esan aritu ziren. Rivabellosatik ere (eta

streaming gabe) ondo entzun zen bukaerako
agurra. Hortxe geratzen da, Arabako bertso
antologiarako!

Aroa Arrizubietaren bukaerako agurra.
Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Eskerrik asko Muxikakoei
tratatzearen horrela,
zueri ere sentitu bainaiz
udalekutan bezela!
Familiakoei, klasekideei,
ezin zen izan bestela...
Ta kritikatu gaituzten denak
izorratu daitezela:
Arabar batek lortu duela
Euskal Herriko txapela!

Zorionak Aroari eta Arabako gazteriarri!
Erritmoa markatzen, distantzia motzean
zutik eta gogor!

KOPLA

Hamaika herri, lagun,
hamaika istori...
musikarekin ere
ari gara ongi.
Posible egitearren,
altxa kop(l)a hori!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



Biba Bertsoa Bizi Gazte!

Zer da? BBC, BBK, BCC...

BBGrianoak



Elstorio honekin hasi ginenean, BBG esanda, jende gutxik zekien zer ote zen, batzuk BBC egunkari estatubatuararekin nahastu zuten, BBK live musika festibala Arabara ekarri behar genuela pentsatzen hasi zenik ere izan zen... Kontuak kontu, ikaste-txeetako ikastaro, bertso saio, rap emanaldi, gitarra desafinatu eta mila kontu eta komeriaren ostean, kurtsoa joan da eta baita azken

eguna, Bertsoa Bizi Gazte eguna ere, Legution ospatu genuena maiatzaren 13an. Egunak sekulako espektatiba sortu zuen, goizetik zurrumurrak indarra hartu baitzuen bideo emanaldiaren ostean bertsolari ezagun batek striptisa egingo ote zuen..., ez dakit honegatik edo Oiondik autobuskada bat kutxa ardo ekarri zutelako, baina aretoa bete genuen. 12 bideo klip ikusi eta txalotzeaz gain, eskolarteko final

paregabea entzuteko aukera ederra izan zuten bertaratuak.

Goiza joan zen eta Basque Currynary Center eko bekadunek eskaini ziguten arroza, mundiala zegoen gainera! eta baita porfinterolak ere! Jere, Ezkerro eta Soloren musikarekin batera BBGko espiritua eraginda edo, beti gazte bertsolariak ere aritu ziren kantari, eta ezkontzarik eleganteenen pare, dantza plazarekin amaitu genuen eguna. Izugarria izan zen banakoan jendea hanka gorantz jasotzen urrunetik (badaezpada) ikustea, zenbaiti tortikulisa eragiterainoko gora beherak haiek..., ikustekoa, ondoren oholtzan estatuak baino geldiago egon oi direnak, gerria modu horretan mugitzen ikustea! Hala da bai, primeran pasa genuen eguna eta auzolanean plazako traste tristeak jaso ondoren, berriz ere etxera bueltan. Azkenean, bi lagun baino ez zituzten eraman ambulanzian, aurreikuspenik baikorrenak gaindituz.

Biba bertsoa bizi gazte!

La, la, lala, larala...ABEren txosnatik, nonosmoveran!

Txustapena

Batzar Orokorra(k), txapelketa eta bere hamaika balorazio, sutondoko saioak, gai jartzaile gazteen ikastaroa, Bertsoa Bizi Gazte, Eskolartekoa, barnetegiak, bideo klip lehiaketa, Altxa Koplak Hori!... bale, baleeeee. Neguak eta udaberriak askorako eman dute, geldirik ez gara egon, hotzik ez dugu pasatu.

Eta badator uda, udalekuak, saioak herriko jaietan, Aihotz plazako saioak, bertso-piszina (A! Ez, barkatu, hau oraindik ez) eta Gasteizko jaietako txosna.

Aurten ere presente egongo gara Gasteizko Txosnagunean, abuztuaren 4tik 9ra bitartean. Aurten eskenatoki nagusitik urrun, beste giro bat, giro "age". Egunero 20:00etatik aurrera irekita, afari ederrak, kristoren animazioak. Aurreko urtetan bezala, Txankete eta Veranoazuleko lagunak bertsoan arituko dira gure txosnan. Txosnan eskuak behar ditugu, barra

ertzean eta lapiko artean egoteko. Hartu txanda bat, ekarri kuadrilla laguntzera, lagun artean lan eginez ederto pasatzeko (Ederto ez, paradisuaren egongo zara!!!). Txandak hartzeko idatzi (araba.administrazioa@bertsozale.eus).

Txanketek eta guk beso zabalik hartuko zaituztegu. Zeren etaaaa, ABEren txosnatik nonosmoveran! La, la, lala, larala...



Bertsoaren saltsan bertso-eskola

Itakaren bila

Urte askotako ibilbidea darama gure txalupak, Itakaren bila.

Gasteizko Udalak antolatzen dituen ikastaro guztien artean badago bat bertsoaren barrunbeetan murgiltzeko aukera ematen duena. Gaur egun bertso munduan dabilen jende askok egin du egonaldi bat gure portuan, Iparralde Gizarte-etxean, ikasle edo irakasle moduan.

Aspaldi atera zen arren, ez dauka gelditzeko zantzurik, eta hori da berezia egiten duena gure bertso-eskola: badauka marinel talde finko bat edozein galernak ez duena kikiltzen eta urtea joan, urtea etorri hutsik egin gabe astelehenero txalupa barruan doana.

Hiru hilabetero, portu bakoitzean turistak sartzen dira kuriositateak bultzatuta. Batzuk kukutxo bat baino ez digute egiten, baina beste batzuk gure sirena kantuak liluratuta etxeko bihurtzen dira.

Txalupa barruan egiten duguna sinplea da: bertsoan. Bakoitza bere mailan, baina ordu eta erdi horretan ez dugu beste txoririk buruan. Maialen eta Egañaren, edo Aroa eta Aitor Ugarteren, gure perla berrien, ofizioen bat aztertu eta esaten dugu: "neuk ere horrela egin nahi dut". Brujula helburu horretara zuzendu eta berdin da Eolok bere haize guztiak kontrari jartzen baditu ere, guk aurrera egiten dugu.

Egunak izaten dira, noski. Batzuetan badirudi txapela eskura daukazula, eta beste batzuetan ez dakizu burua non sartu. Hor agertzen da ekipo-lana: ondo egindakoa txalotzen jakin, eta egun aldrebesa duenari paparra eskaini lasai negar egin dezan.

Indarrak ondo neurtzen ere ikasi behar da, motorrak behar baino lehen erre ez daitezten. Aurten bertan bi saio prestatu ditugu Iparraldeko liburutegian eta ludotekan, arrakasta handiz gainera. Korrikaren bideo-lehiaketan ere parte hartu dugu, trending topic izan zena whatsapperoen artean, mozorro eta

guzti! Izan ere, badaukagu taldean saltsero andaluz energetiko bat. Txirritak ezagutu izan balu!

Hori bai, gu gehien motibatzen gaituena Koadrila arteko txapelketa da. Beste taldeak ez dakigu, baina gu hasi gara jada prestatzen. Kontuz gurekin!

Inspirazio bila iturri zaharretara hurbiltzen gara tarteka, eta berrietara ere bai. Harri-garria da txikito batek zenbat arintzen duen mingaina, bigarrenak gehiago, baina hirugarrenak bertso-amaierak ahaztera eraman zaitzake. Hori ere bada bertso-eskola batek irakatsi behar duen zerbait. Gora Errexala!

Irakurle lagun, bertsoaritzaren arrakastaren zergatien bila bazabiltza, edo neuro-nak mugimenduan mantendu nahi badituzu, edo nahi duzuna nahi duzun doinuan kantatzeko tokiren bat aurkitu nahi baduzu, edota jende berria ezagutu nahi baduzu, badakizu nora etorri.

Guzti honetaz pentsatzen duzun bitartean, ondo pasa uda!



AGENDA!



Gasteizko jaiak
Aihotz plazan
Egunero 13:30ean

ABUZTUAK 5, larunbata

Jon Maia, Oihane Perea

Gai-jartzailea: Aintzane Irazusta

ABUZTUAK 6, igandea

Felipe Zelaieta, Paula Amilburu, Xabier Terreros, Sebastian

Lizaso Gai-jartzailea: Maialen Kortabarria

ABUZTUAK 7, astelehena

Manex Agirre, Peru Abarrategi, Ainhoa Agirreazaldegi, Unai

Iturriaga Gai-jartzailea: Oier Suarez

ABUZTUAK 8, asteartea

Julen Zulaika, Asier Rubio, Miren Amuriza, Julio Soto

Gai-jartzailea: Unia Gomez

ABUZTUAK 9, asteazkena

Asier Otamendi, Ruben Sanchez, Ane Labaka, Uxue Alberdi

Gai-jartzailea: Nieves del Alamo

Abuztuak 7, Gasteizen

21:00etan Aihotz plazatik hasita, Gaztetxea, Felerina

Antolatzaileak:

GEU elkarteak, Oihaneder etxea, Arabako Bertsozale Elkarteak

Kargak & Deskargak



KARGAK & DESKARGA

Kaleko bertso eta musika ibiltaria.

Bertsolariak:

Igor Elortza, Unai Iturriaga

Musikariak:

Josu Zabala, Rafa Rueda

...eta hamaika saio gehiago Araban barrena, bertso gosez ez gaitezen hil.

Saio guztiak: www.bertsozale.eus

ZERNAHI

DANTZATZEN DUEN HERRIA EZ DA INOIZ HILKO



Xabi Igoa

Otamendik bertso eszedentzia hartu zuenean, askori otu zitzaigun hurrengo galde: eta orain zer egin behar du honek?

“Txapelketa gabe aspertuko da...”, “Ez du asko aguantatuko”...

Hara! Argazki hau da urte hura ederto aprobetxatu zuenaren ebidentzia garbiena. Salsa klaseetan murgildu zen, eta bertsoetan ipar haizeak ere mugitzen ez duen gorputza, doinu latinoek jarri dute dantzan.

Euskal Herriko gure super txapeldunak ere ez zuen sinesten Asierren aldakek duten gaitasuna... Martari ostera, pare bat gai gutxienez okurritu zitzaizkion momentu horretan.

Pena Irazu eta haren brigadilla ez zirela “Altxa koplak hori!”-ko saio horretara... Telleria eta Peñagarikanoren bertso afariren baten egongo ziren...